

ALKATEAREN PROBIDENTZIA

KONTRATAZINO ESPEDIENTEAREN ETETEA

Xedea

Bermeoko Udaleko herri-argiteria instalazioen energia-zerbitzuak, mantenu eta ber osoarekin kontratatzeko espedientearen etetea.

Aurrekariak

Aurrekariak

Lehenengoa: 2015eko apirilaren 27an Zerbitzu saileko teknikariak emondako txostenaren arabera, ESE baten bidez herriko argiteria mantentzeko kontratazinoaren beharrezana dago.

Bigarrena: 2015eko apirilaren 27an, behin-behineko idazkariak, baldintza agirien onespena eta txosten juridikoa emon ebazan.

Hirugarrena: 2015eko azaroaren 4an, udal kontu hartzaileak, ikuskatze mugatuaren aldeko txostena igorri eban.

Laugarrena: 2015eko apirilaren 28an, udal Osoko Bilkureak, ESE baten bidez herriko argiteria mantentzeko baldintza agiriak onartze eta deialdia zabaltzea erabagi eban.

Bosgarrena: Lizitazioaren iragarkia, 2015eko abenduaren 10eko Europako Aldizkarian argitaratu zan.

Seigarrena: Proposamenak aurkezteko epearen barruan, enpresa honeen eskaintzak jaso ziran: UTE Instalaciones eléctricas Scorpio, S.A. – Alisea Esco, SA; Imesapi, SA; Elsamex, SA; Valoriza Facilities, SAU; UTE Etra Norte – Etralux; Clece, SA; New Energy concept 2020, SL; Gamma Solutions, SL; Sociedad Ibérica de Construcciones Eléctricas, SA; Tecuni, Sa; Giroa, SA eta UTE FCC, SA – FCC Industrial – Soprener.

Zazpigarrena: Dokumentazino Orokorrean egondako akatsak zuzentzeko emondako epean, akatsak ez zuzentzeagaitik, 2016ko martxoaren 16an eta apirilaren 7an izandako batzarretan Kontratazino mahaiak hartutako erabagien arabera, UTE Instalaciones eléctricas Scorpio, SA – Alisea Esco, SA enpresea kanporatua geratu zan.

Zortzigarrena: 2017ko martxoaren 17an izandako batzarrean, Kontratazino mahaiak, B gutunazalari jagokozan puntuazioak onartu ebazan, Zerbitzu saileko teknikariak 2017ko martxoaren 10ean emondako txostenaren arabera, modu honetan:

Lizitazailea	B gutun azaleko dokumentazioaren balorazioa
Giroa	1,5
Gamma Solutions	8,25
Tecuni	47
New Energy Concept	6,5
FCC – Soprener	15,75
Sice	16
Clece	16
Etralux-Etranorte	1,5
Valoriza Facilities	22,25
Elsamex	4,5
Imesapi	14,75

Bederatzigarrena: 2017ko martxoaren 27an izandako batzarrean, Kontratazino mahaiak, prozesuan jarraitzen eben lehiatzaileeri, C gutun-azaleko proposamenen ganeko azalpenak eskatzeko errekerimendua egitea erabagi eban.

Hamargarrena: Behin errekerimendua beteteko epea igarota, 207ko uztailaren 13ko Kontratazino mahaiak, SIAR INGENIERIAko Luis Miguel Navarro Zapatero jaunak 2017ko ekainaren 30ean emondako txostenean eta Zerbitzu Saileko teknikariak 2017ko uztailaren 11n emondako txostenean oinarrituta, prozesutik enpresa honeek kanporatzea erabagi eban: UTE Imesapi, SA; Elsamex, SA; Valoriza Facilities, SAU; UTE Etra Norte – Etralux; New Energy concept 2020, SL; Gamma Solutions, SL; Sociedad Ibérica de Construcciones Eléctricas, SA eta Giroa, SA.

Elsamex, SA, Etra Norte – Etralux; New Energy concept 2020, SL; Gamma Solutions, SL eta Giroa, SA enpresen kasuan, errekerimendua ez erantzuteagaitik izan ziran kanporatuak.

Navarro jaunak egindako txostenaren arabera, beste enpresak kanporatzeko arrazoiak honeek izan ziran:

-UTE Imesapi, SA: eskaintza ekonomikoan akatsa egotea.

-Sociedad Ibérica de Construcciones Eléctricas, SA: eskaintza ekonomikoan akatsa egotea.

- Valoriza Facilities, SAU: koherentzia eta argitasun falta, eta akatsak azken laburpeneko taulan.

Era berean, geratzen ziran enpresen puntuaketa onartu zan, Zerbitzu saileko teknikariak 2017ko uztailaren 11n emodako txostenaren arabera:

B	C1					C2				ESKAINTZAREN PUNTUAZIOA
	AURREZPENAREN GAINEKO EHUNEKO GEHIGARRIA (0-10)		P4 GAUZATZEKO EPEAREN URRITZEA (0-2)			ESKAINTZA EKONOMIKOA (0-38)				
ENPRESA	PUNTUAK (0-50)	Ehuneko gehigarria %	PUNTUAK (0-10)	P4 gauzatzeoko epea	P4 gauzatzeoko epearen urritzea	PUNTUAK (0-2)	Eskaintza ekonomikoa (urteko)	Eskaintza ekonomikoa (kontratua)	PUNTUAK (0-38)	PUNTUAK (0-100)
TECUNI, S.A.	47,00	90,00	10,00	14	12	0,00	257.278,93 €	3.087.347,16 €	0,00	57,00
CLECE, S.A.	16,00	90,00	10,00	16	10	0,00	186.354,68 €	2.236.256,16 €	27,57	53,57
UTE FCC,S.A-FCC Industrial - SOPRENER	15,75	90,00	10,00	12	12	2,00	200.599,38 €	2.407.192,56 €	22,03	49,78

Eta puntuaketa horren arabera, Kontratazino organoari kontratua TECUNI, SAri esleitzeko proposamena egitea onetsi zan.

Hamaikagarrena: Behin kontratazino prozedura izapidetuta, Osoko Bilkureak, 2017ko uztailaren 20an izandako batzarrean, proposamenak sailkatzea, sailkapen horren arabera lehenen geratu zan lehiatzailea (TECUNI, SA enpresea) esleipenerako proposatzea eta, 10 eguneko epean, zenbait agiri aurkeztu, behin betiko fidantza ipini eta kontratuaren publizitate gastuak ordaintzeko errekerimendua egin jakon.

Hamabigarrena: TECUNI, SA enpreseak, eskatutako dokumentazioa aurkeztu eban 2017ko irailaren 1ean.

Hamahirugarrena: 2017ko irailaren 4an, Zerbitzu saileko teknikariak txostena igorri eban.

Hamalauugarrena: 2017ko irailaren 5eko 1089. Alkatetza Dekretu bidez, eta 2017ko uztailaren 20ko Osoko Bilkuraren delegazioz, Bermeoko Udaleko herri-argiteria instalazioen energia-zerbitzuak, mantenu eta ber

osoarekin kontratua A-4808178O IFZ zenbakidun TECUNI, SA enpreseari esleitzea erabagi zan.

Hamabosgarrena: 2017ko urriaren 5ean, 10999 Sarrera Erregistro zenbakidun idazti bidez, Valoriza Facilities, SAU enpreseak, Kontratazino Gaietako Errekurtso berezia jartzearen iragapena aurkeztu eban.

Argudioak

Bakarra: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratua onartzen dauan 3/2011 EDLaren 156.3 artikulua honakoa dino: "Si el contrato es susceptible de recurso especial en materia de contratación conforme al artículo 40.1, la formalización no podrá efectuarse antes de que transcurran quince días hábiles desde que se remita la notificación de la adjudicación a los licitadores y candidatos. Las Comunidades Autónomas podrán incrementar este plazo, sin que exceda de un mes.

El órgano de contratación requerirá al adjudicatario para que formalice el contrato en plazo no superior a cinco días a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, una vez transcurrido el plazo previsto en el párrafo anterior sin que se hubiera interpuesto recurso que lleve aparejada la suspensión de la formalización del contrato. De igual forma procederá cuando el órgano competente para la resolución del recurso hubiera levantado la suspensión".

Eta Lege bereko 45. artikulua honakoa: "Una vez interpuesto el recurso, si el acto recurrido es el de adjudicación, quedará en suspenso la tramitación del expediente de contratación".

Erabagia

Hori guztia dala eta, Bermeoko Udaleko herri-argiteria instalazioen energia-zerbitzuak, mantenu eta ber osoarekin kontratazeko espedientea etenda geratzen da, Valoriza Facilities, SAU enpresearen errekurtsoa ebatzi arte edo Kontratazino Gaietako Errekurtsoen Organuak etena altxa arte.

Bermeon, 2017ko urriaren 6an.


Idurre Bideguren Gabantxo
ALKATEA